

ORRI ZURI HUTS BAT

Haitz Aranburu Mutiloa

Oiartzun

Orri zuri bat ez da ezer,
baina aldi berean orri zuri bat da.
Ematen du ez daukala ezer,
baina daukana ezereza da.
Kolorerik ez omen du,
baina pentsatzen jarrita zuri kolorea du.
Badirudi ez duela ezer adierazten,
baina idazlearen pentsamendu zuria, ordea, bai.
Orriak ez omen du material askorik;
bai, ordea, hainbat zuhaitzen bizitza.
Eta zuhaitzaren bizitzarekin batera,
hura landatu zuenaren ilusio guztia.
Idazleak ere bazuen ilusiorik,
buruaren zurtasuna koloreztatzeko gai ez dela
ohartu den arte.
Kolorerik gabe tintarik ez,
eta tintarik gabe hitzik ez.
Eta hitzik gabe testurik ez,
eta libururik ere ez.
Orriak beti bezain zuri,
beti bezain mehe,

beti bezain huts jarraituko du,
baina jarraituko du.
Jarraituko du orri izaten
eta barnean daramatzen zuhaitz zirenen bizitzak
gordetzen,
baita idazlearen zentzumen izaten ere.
Izan ere, oraindik itxaropenaren argi izpitxo
ez zaio itzali orriaren paperezko bihotz meheari.
Badaki, pixkanaka-pixkanaka, letraz letra, hitzez
hitz,
esaldiak lotuz sorturiko zubi luze bat eraikiz,
haur eta gazteen amets izatera iritsiko dela.
Ez du etsiko ezta amore emango,
sinesten baitu egunen batean
liburu eder eta trinko baten zati izango dela.